

Erregetzaren morrointzak

Deia, 1977-07-24.

Erregeak, Gorteen zabalkunderako hitzaldia egin du.

Ez nuen uste honenbeste txalo jasoko zituenik. Gorespenak ez dira eskuinetik bakarrik etorri. Carrillo-k eta Dolores Ibarruri-k ere bereak egin dizkiote. López Rodó-ri bakarrik (beti agintzen duenarekin!) ez zaizkio nahikoak iruditu.

Gutxien goratu dutenak, nazionalitateetako ordezkariak izan dira.

Katalanak eta euskaldunak, batez ere.

Denak aitortzen dute aho batez. Erregek demokrasi bideak konstituzio bidez eta herriaren agindupean gauzak egiteko asmo sendoa erakutsi duela.

Herria, oso kontzeptu zabal-lasaia da.

Demokrasi hori nola egosiko denaren zai geunden gu, Herri eta Nazionalitate geranez.

Eta hemen ez du ezer esan.

Demokrazia egitazko oinharrietan finkatzeko, gure herriak Amnistia osoa ere behar du.

Eta erregek ez du Amnistiarik aitatu.

Ba dakigu Erregek honelako okasioetan egiten dituen hitzaldiak, orokorrak, axalekoak eta nolabaiteko zuzen-neurridunak behar dutela izan. Baina zuzentasun eta neurri hori erakusteko behar ziran ezin-bestekoak eta okerrak ez diren gauza batzu aitatu ere.

Eta ez ditu esan.

Gure Herriko Errege bada, gure arazoak ere behar zituen kontuan hartu; eta hartu ez baditu, legezko da euskaldunen arduradun batzuek kazetarien galderei ez erantzun nahi izatea.

Juan Ajuriagerrak erantzun egin du, baina honela: "Ez dizut nere eritzirik emango; neretzako gordetzen dut".

Honela, ez dio Erregeri itsusirik egiten, baina ezta ere zurikatzaileen gortean sartzen.

Gauzak, bere tokian.

Erregek, erregetzaren morrointza dela-ta, hitzaldi neurtu, orokor, ongi hasi eta zentzuduna egin du.

Baina guri ez digu ezer esan.